


# GLAZIAREAK

ELURRA izotz bilakatzeko prozesuak baldintza termiko bereziak eskatzen dituenaz, glaziareak elurra inoiz desagertzen ez den eremuetan baino ez dira sortzen, hau da mendi altuetan eta eskualde polarretan. Glaziareek Lurraren gainazalaren % 11 estaltzen dute, baina Lurreko ur gezaren hiru laurdenak gordetzen dituzte. Glaziareek osatzen duten izotz-masaren % 99 Antartika eta Groenlandian dago pilatuta. Gainerako kontinente guztietan zehar eta latitude altuetako irletan hedatuta dago. Gaur egun munduan zehar 70.000-200.000 glaziare daudela uste da. Glaziareen higikortasuna oso txikia da beti (m/urteko-tan adierazia) eta mugimendu hau erliebearen malda aprobetxatuz edo elur-metaketak sortutako indarren ondorioz gerta daiteke. Orokorrean, hiru glaziare-mota bereizten dira:




## a) Glaziare kontinentalak edo inlandsis-ak

Eskualde polarretan eremu zabalak hartzen dituzte eta lodiera handia dute. Zenbaitetan lurralde hauetako mendikateak estaltzen dituzte. Ia Antartika osoa 14.000.000 km<sup>2</sup> eta batezbeste 1.980 metroko lodiera duen izotz-masaz estalita dago eta Groenlandia, berriz, 1.800.000 km<sup>2</sup> eta 3.350 metroko izotz-lodieraz. Glaziare hauek itsasora heltzean zatitu egiten dira, iceberg izenez eza gutzen diren izotz-blokeak sortuz.

## b) Mendi- edo haran-glaziareak

Pilaketa-eremu batetik (zirko glaziarretatik) sortzen den izotz-mihia, mendi-haranen erliebeak eraturako bideari jarraituz hedatzen da. Zenbaitetan izotz-mihi hauek elkartu egiten dira, sare hidrografikoen antzera garatuz. Horrelako glaziareak munduko mendikatea askotan agertzen dira (Alpeak, Andeak, Himalaia, etab.). Hauen artean, murriztenak kilometro karratu bat baino azalera txikiagoa duten izotz-masa meheak dira (Pirinioetako hainbat gla-



ziare). Aldiz, ezagutzen den mendi- edo haran-glaziare handienak (Antartikako Beardmore glaziareak) 40 km-ko zabalera eta 190 km-ko luzera du. Horrelako glaziare arruntenek 300-900 metroko lodiera dute.

## c) Mendioineko glaziareak

Mendi- edo haran-glaziareak, erliebe handiak atzean utziz, lautadetara heltzen direnean eratzten dituzten abaniko-formako eremu zabalak. Zabaltze hau itsasoan gertatzen denean izotz-plataformak eratzten dira (adibidez Alaskan, Malaspina eta Bering glaziareek bakoitzak batez beste 3.800 km<sup>2</sup>-ko azalera dute). Glaziareen higikortasunari lotuta doan erosioak U eitea duten haranak eratzten ditu, eta ibaien bitartez sortutakoek V forma izaten dute. U eiteko haranetara itsasoa sartzen denean sortzen den golko-motari fjord deritzo.



**Icebergak** Glaziare kontinentalen aurrealdetik banatutako izotz-puskak dira. Bloke hauek flotatu egiten dute, baina uraren gainetik ikusten dena, berez, iceberg osoaren bostena besterik ez da.